

HONA BERE **ISTORIA**

ZOUHAIR Marokotik iritsi zen, han bertan lan-kontratua lortu ondoren. EBere herrialdean, ingeniaritza agronomoan lizentziatu zen baina bere titulua Espainian homologatu ezin zuenez, zaila zuen bere prestakuntzarekin bat zetorren lana aurkitzea.

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi batean egiten zuen lan, Kantabrian. Hainbat lan egiten zituen: behiei jaten eman, garbitu, belarra moztu, hondatzen ziren gauzak konpondu... Gogorra zen, baina bazekien zerbaiteko hobea aurkituko zuela lehenago edo beranduago. **Baserrian bizi zen, eta ostatu hartzea soldatatik kentzen zioten;** hortaz, kontratuan agertzen zena baino gutxiago jasotzen zuen.

Lehen urtean, arazorik gabe berriro ahal izan zuen **egoitza-baimena, eta bi urterako txartela eskuratu** zuen. PBaina epe hori amaitzean, **berriztatze berrirako, bere nagusia oztupoak jartzen hasi zitzaion...** Edonola ere, hitzordua lortu zuen atzerriarrentzako bulegoetan.

ZOUHAIR

Bere harridurararako, **UKO** egin zioten bere eskabideari.

Enplegu-emaileak, bi urte lehenago, harengatik kotizatzeari utzi zion...

Lehen txartela berriro eta handik gutxira, hortaz, Zouhair **irregulartasun-egoeran geratu zen.**

Lan hori utzi zuen, baliozko beste lan-eskaintza bat aurkitzeko asmoarekin; **errotze sozialagatik ezohiko eskaera aurkezteko.** Torrelavegan jarri zen bizitzen, herrikide batzuen pisuko gela batean.

Caritaseko boluntario egin zen, eta, egun batean, bilera batetik irtetean, atean bertan, **poliziak agiriak eskatu zizkion.** **Zouhairrek ez zuen agiririk, eta, hortaz, haren kanporatze-espeditatea martxan jarri zen.**

Baina, zorionez, ez zuten Atzeritarren atxikitze-zentro batera eraman. Baina **guzti horrek, segurtasun-gabezia eta antsietate handiko egoera batera eraman zuen.**

Zouhairrek kalera irteteari utzi zion, eta ez zuen etxeko atea irekitzen, polizia izango zelakoan. Adorea galtzeaz gain, egoera horri belauneko lesio bat gehitu zitzaion, bizitza normala egitea galaraziz. Ez zuen ebakuntza egiteko aukerarik, ez baitzuen osasun-laguntza jasotzeko eskubiderik.

Zouhair gero eta antsietate zurrumbilo handiago batean sartu, eta depresio sakon batean murgildu zen.



Caritas

EGIN ZURE HITZ-HODEIA

Aukeratu hitz batzuk ikusi berri duzun istorioa eta iradokitzen dizkizun ideia eta sentimenduak laburbiltzeko. Hona hemen hiru adibide.

SEGURTASUN-GABEZIA

LAN DUINA

ESPLOTAZIOA

[Empty text boxes for notes]



ISTORIOA ULERTZEKO **GAKO BATZUK**

- Atzeritar Legeak, beharrezkotzat jotzen du, oro har, eta, besteak beste, baldintza hauek betetzea egoitza eta lan-baimenak berritzeko:

Egoera hauetako bat frogatu ahal izatea:

- Berritu nahi den baimena ematea ahalbidetu zuen **lan-harremanarekin jarraitzea**.
 - **Lan-jarduera** urtebetean gutxienez **sei hilabetez** egitea eta:
 - **Lan-kontratu berri** bat sinatzea eta **alta-egoeran edo antzeko egoeran** agertzea eskaera egiten den unean, edo
 - **Kontratu berri** bat izatea, langilearen **lan-jarduera bermatuko** duena, eta baimena jasotzea izatea lanean hasteko baldintza.
 - **Lan-jarduera** urtebetean gutxienez **hiru hilabetez** egitea, baldin eta:
 - Baimena ematea ahalbidetu zuen **lan-jarduera langilearekin loturarik ez zuten arrazoiengatik eten bazen**.
 - **Lana modu aktiboan bilatu bada**, Enplegu Zerbitzu Publiko eskudunean eskatzaile gisa izena emanez.
 - **Lan-kontratu bat indarrean badu**.
-
- **Espainiako lan-merkatuan, zailtasun handiak daude baldintza horiek betetzeko, oso zorrotzak eta ez oso errealistak baitira, eta, errealitatean, [jendea gizarte-bazterketara bultzatzen dute](#).**
 - Langile espainiarrentzako **lan-ondorio** arruntak, kaleratzeak, etab. **oso kaltegarriak izan daitezke edozein emigratzailearentzat, administrazio-egoera irregularrean geldi baitaiteke**, eta horrek berekin ekar dezake deportatua izatea edo [Atzeritarren atxikitze-zentro batean sartzea](#), eta, horren ondorioz, beldurrez egotea kalera irteteko, garraio publikoa hartzeko eta abar egiteko.

GURE ERROETAN

Aintzat hartzeko zenbait aipamen:

- “Immigratzaileak jasotzen dituzten herrialdeetako erakundeek kontu handiz ibili behar dute tentazioa zabaldu ez dadin atzerriko langileak esplotatzeko, bertako langileei bermatzen zaizkien eskubideak ukatuz, eskubide horiek denei bermatu behar baitzaizkie, bereizkeriarik gabe. Migrazio-fluxuak, bidezkoitasun eta oreka-irizpideen arabera arautzea ezinbesteko baldintzetako bat da gizarteratzea giza duintasunak eskatzen dituen bermeekin gauzatu dadin. Immigratzaileei pertsona gisa egin behar zaie harrera, eta lagundu egin behar zaie, beren familiekin batera, bizitza sozialean integratzen.” ([Elizaren Irakasbide Sozialaren Laburpena, 298.a.](#)).
- “Lege-egoera irregularrean egoteak ez du aukera ematen emigratzailearen duintasuna gutxitzeko, eskubide besterezinak baititu, urratu eta baztertu ezin daitezkeenak.” (Joan Paulo II.aren mezua, Emigratzailearen Nazioarteko Jardunaldirako, 1996).

TALDEAN EZTABAIDATZEKO GALDERAK

- > **Zouhairren kotizazioa edo ez kotizatzea ez dago bere esku soilik.** Enplegu-emailearen esku dago. Orduan, zergatik pairatu behar ditu ondorioak Zouhairrek bakar-bakarrik?
- > **Zure ustez, bidezkoa al da irregulartasun-egoeran egotea, edo ez, kotizazioan soilik oinarritzea?** Zouhair lanean ari zen, eta uste zuen berarengatik kotizatzen zutela baina erabateko bazterkeria-egoera batean geratu zen, enplegu-emaileak ez zituelako gauzak behar bezala egin...
- > **Ba al dakizu Europar Batasunean badaudela lana eskuratzeko beste modu batzuk?** Beste herrialde batzuetan, aukera dago egoera berberetan lana eskuratzeko eta kotizatzeke, egoitza-baimena izan ez arren. Luzarora, modu horretan zenbait kontratu izateak baimena lortzea erraztu dezake. Ez da eredurik onena, baina prekarietatea, abusua, esplotazioa eta ezkutuko ekonomia ekiditen ditu.
- > **Zure ustez, bidezkoa al da pertsonak eskulan gisa soilik hartzea?** Zouhair auzokidea da, Caritaseko boluntarioa, laguna...
- > **Zure ustez, polizia-baliabideak erabili behar al ditugu pertsonen atzetik joateko,** kanporatze-espeditenteak hasteko helburuarekin, baldin eta deliturik egin ez badute, baizik eta hutsegite administratibo bat?
- > **Zer alternatiba bururatzen zaizkizu, edo zaizkigu talde gisa?**